

ERRONKARIKO USKARAZ

Erronkariko euskara il urren da, azkenetan dago; ango erritarrek erdaraz diote eta kopeta gora "se ha perdido", biozminik gabe.

Erronkariar askoekin itz-egiteko aldia izan dutalarik, bati ez (Izabako bat) beste guztieri ezpada geieneri, euskara galtzeakin ikasiago bere buruak agertzen dituztela iduri zeie.

Beti oroituko naiz, Izabako gizon argi bat, euskaraz poliki ari zen; arek agertzen zuen biozmina, baño ezdakit ote zen euskarari buruz nere aburua bereko agertzeagatik; badaiteke orduan nerekin batio ari ere piztu zitzaiola biotzean, euskeraren alderako maitetasuna.

Nola nai den dela, baldin erronkariarren artean laster *uskalzaletasuna* pizten ezpada, emendik ogei ta bortz bat urten buruan ibar eder eta aberats artako euskerarenak egin du, damurik.

Nafarroako gizagende (Erronkarin *ilagende* = ganado lanar) mota larriena an dago. Soinez sendo eta lerdin badire, *buruz argienak* ere an ditugu. Beren itzalak ere badituzte baño gisa batera nafartar nagusienak erronkariarrak ezpaditugu, bedere beste nafarrenganik non nai eta erraz berexten dira.

Aspaldidanik eta askotan nere baitan egona naiz Bonaparte jakintsuak * orren maite zuen izkelgiak, ez ote zuen eta ez ote du zerbeit besteeri negusitzen duena?

Dakiguna da baduela zerbeit eta zerbeit besteen ganik argi eta garbi berexten duena.

Ura berexten duen guztia ezpada, asko zer eta zeren berri ematen digu Azkuek Erronkari-ko euskara gaiaz egin digun lan ederrean. (*Particularidades del dialecto roncalés*, R. M. Azkue).

Azkue jakintsuak eta langile azkarrak Erronkarin bertan maiz luze egonik eta, orai berriki an ikasi bildu dituen berri argi eta garbi ematen digu.

Azkue jauna, buruz eta jakinduriz unelako lan baten egiteko gaiena ezpada, bada norbait buruz jakinduriz eta oniraupenez euskerari buruzko lanetan.

Euskal erriak eta euskaldunak zor-andietan gaude jaun unekin eta nik emendik biotzezko zorion agurrik beroena zuzendu nai diot.

Bonaparte zenarekin batio eta gero bera bakarrik (nik dakitala) ikasi ta ikasi ari da, euskara horren mami eta usaña biltzen nun nai; eta aren nabarmen berexieneri oartzen.

Idazia bederatzi zatitan emana da, baño neri atseginago eta jakin *garrienak* zaizkitanak, Esakerak, Lekukoerak eta Iztegia.

* Bonapartek dio kallesez bere «Formulaire de prône» idaztiñoan.

«...Tous les grains d'or gramatical et lexical que nous avons exploités, surtout dans la vallée de Roncal parmi ces braves montagnards si intelligents, si hospitaliers quoque ensevelis au milieu des neiges et entourés de toute part de ravins, de précipices, d'ours et des loups».

* * *

Añadimos esta carta que es de interés por la tardía fecha, años después de la última de aquél benemérito e inteligente Mariano Mendigacha, de Vídangoz, pueblo que no está en la ruta como el de Roncal, y que pudo por tanto conservar mejor su lengua.

Roncal, 9 julio 1926.

Señor don Fermín Irigaray.

Pamplona.

Enetaco guizon hona:

Nola dago ene semia; Tempra anisco viarda igari lecu cortan, falta andia eguitan du eche contan otoy eguin veza eguinala sontodein fite.

Niri ance ceitan galtatia zomat valio du ene semiaren visita erranvezau ene llovari zomat valio du eta ene llovac pacatendau.

Orren cerbucharia y eta adichquidia

Benita Hualde